

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

SEMANA DEL TEATRO

ZIZURKILGO ANTZERKI ASTEA



APIRILA

Z. 164 / Udaberria 2018
www.zizurkil.eus / 943 691012
ErnioBidea 9A, behea
20159 ZIZURKIL



KULTURA

21

BAKEAN DAGOENARI BAKEAN UTZI!

22:30ean Iriarte Kultur Etxean.

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek punta aterako diote euskara eta generoarekin lotutako hainbat konturi: onomatopeiak, amatasuna, irainak, euskarakadak, gorpuzkerak, ligatzeko teknikak...



25

ETSITA!,
Trapuzaharraken
kale antzerkia,
20:00etan Plazan.

23

MENDI
TONTORREAN,
11:00etan Atxulondon, LH1-6ko
haurrentzat.

24

YOGIPUINAK, ipuinak
eta yoga 10:00 eta
11:30ean Atxulondon,
HH4 eta 5eko
haurrentzat.

25

Munduari bira (ia) 80
trukutan, IMANOL
ITUIÑO MAGOA
Zubimusu ikastolan,
15:00etan.

26

Otaño, Zubimusu eta
San Millan Ikastolako
umeen EMANALDIA,
11:00etan Atxulondon.

27

Munduari bira (ia) 80
trukutan, IMANOL
ITUIÑO MAGOA San
Millan eskolan, 15:00etan.



APIRILA

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata
02 ITXITA	03 IRTEERA ASKIZURA	04 IRTEERA ASKIZURA	05 ITXITA	06 PARRILLADA KOMIZARREN	07 ITXITA
09 ITXITA	10	11	12 JOLAS LIBREA	13 XAKE FESTA	14 SALTO GELA ATXULONDON "Sumo"
16 PING PONG TXAPELKETA	17	18	19 JOLAS LIBREA	20 GAZTE CUP	21 SALTO GELA ATXULONDON "Acrosport"
23 ESKULANAK	24	25	26 ESKULANAK	27 GAZTE CUP	28 SUKALDARITZA TAILERRA
ITXITA	30				

PLAZIDA OTAÑO

APIRILAK 20

LIBURUTEGIAREN BIGARREN URTEURRENA:

ABEZEDARIO TITIRIJARIO
liburuko ELENA LAURAREN
ilustrazioen
ERAKUSKETAREN
aurkezpena helduentzat.

17:00etan

JUAN KRUIZ IGERABIDE:
ABEZEDARIOA TITIRIJA-
RIO HITZALDI-TAILERRA,

6-10 urte bitarteko umeei
zuzendua 17:30etik
19:30era. Izen-emateak
liburutegian.

OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK

Selección de monitores para el oporretan euskaraz

8-9 begirale kontratatuko dira ekainaren 25tik uztailaren 20era lan egiteko.
Deialdian parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da:

- Zizurkilen erroldatua egotea.
- 18 urteak beteak izatea edo 2018 urtean betetzea.
- Euskara ondo menderatzea.
- Elkarrizketa-talde dinamika GAINDITZEA.

Hautatze prozesuak 2 fase izango ditu: **titulazio eta esperientzia atala eta elkarrizketa-talde dinamika**. Zuzeneko hartu emanak duen garrantzia azpimarratu nahian 1go faseari %40ko balioa emango zaio eta 2. faseari %60a.

- 1go fasean titulazio eta lan esperientziaren balorazioa egingo da (denbora libreko begirale edo zuzendari titulua, heziketarekin zerikusia duten ikasketa, ikastaro, monografikoak, e.a., esperientzia antzeko lanetan eta langabetu edo ikaslea izatea).

- 2. fasean elkarrizketak-talde dinamikak egingo dira. 45 minutuko iraupena izango dute eta baloratuko direnak hurrengo atalak izango dira:

- Parte hartzea.
- Gizarte trebetasunak.
- Talde lanerako gaitasuna.
- Euskara maila.
- Diskurtsoa.

Izenak emateko epea: **apirilaren 27a.**

Elkarrizketa-talde dinamika:
maiatzaren 4an 18:30ean Pedro M^a Otaño Ikastatetxean.

PAREKIDETASUNA

JOSKINTZA TAILERRA

prezioa: 30 euro

GORPUTZ IKUSEZINAK IKUSTEN.
MODA, JABEKUNTZA FEMINISTARAKO TRESNA

Tailerra: maiatzaren 26 eta ekainak 2, 9, 16 eta 20an 9:00etatik 13:00etara.
Izen emateak: Zizurkilgo Udal Bulegoetan, 943-691012, 4. luzapena,
maiatzaren 4a baino lehen.

Helburuak :

- 1-Gure gorputzaz jabetu eta gozatu.
- 2-Gure sormena josi eta gorpuztu: formetan, koloreetan, ehunetan... gure izaera, pentsamenduak, emozioak aldarrikatzen dituzten jantziak josten eta pertsonalizatzen ikasiko ditugu.
- 3-Moda jasangarria jantzi.



EGIZU ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!

APIRILAREN 16TIK EKAINAREN 30ERA



KULTURA

DIRU LAGUNTZA DEIALDIA **Convocatoria de ayudas**

KIROLA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA INGURUKO EKINTZA INTERESGARRIAK FINANTZATZEKO ETA ELKARTEAK LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: Udalak 2018. urteko dirulaguntzak elkartei emateko Deialdia kaleratu da eta eskaerak aurkezteko epea **maiatzaren 7an** amaituko da.

BESTELAKOAK

APIRILAK **5**

ANGULA USTELAK hitzaldia, Ainhua Intxarraundieta eta Igor Melchor 19:00etan Plazida Otaño gela balioanitzean.

APIRILAK **28**

ESKOLA ARTEKOEN ZIZURKILGO II. LASTERKETA: 2009-2004 urte bitarteko gaztetxoak arituko dira 16:30etik aurrera.